

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Behin betiko onespena ematea Gasteizko Udalaren VGBiziz bizikleta-aparkaleku seguruan sartzeko eta aparkalekua erabiltzeko baldintzak arautzeko ordenantzari

2021eko otsailaren 19an egindako ohiko bilkuran eman zion behin betiko onespena udalbatzak Gasteizko Udalaren VGBiziz bizikleta-aparkaleku seguruan sartzeko eta aparkalekua erabiltzeko baldintzak arautzeko ordenantzari. Horrenbestez, indarrean jar dadin, ALHAOn argitaratu beharra dago, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 22an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Eranskina

BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA GASTEIZKO UDALAREN VGBIZIZ BIZIKLETA-APARKALEKU SEGURUEN ZERBITZUAN SARTZEKO ETA ERABILTZEKO BALDINTZAK ARAUTZEKO ORDENANTZARI

ZIOEN ADIERAZPENA

— | —

Gasteizko Udalak mugikortasun eredu berria sortzeko konpromisoa hartu du Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren eta Ziklisten Mugikortasunaren Gida-planaren bitartez; eredu horretan, mugikortasun aktibo eta kolektiboa bultzatzen duten irtenbideak lehenetsiko dira banakako eta motordun aukeren gainetik. Espazio publikoaren eredu berria ere sortu nahi du, zeinean pertsonak izango baitira lehenengo eta, beraz, elkartzeko, harremanetan jartzeko eta gizarteratzeko funtzioak izango baitira nagusi zirkulazio eta mugikortasun funtzioen gainetik.

Ildo horretatik, Gasteizko Udala bizikleta sustatzen ari da mugitzeko benetako alternatiba gisa, bizi-kalitatearen hobekuntzaren, segurtasunaren, eraginkortasunaren eta iraunkortasunaren printzipioekin bat etorritz.

Gasteizko Udalak bizikletentzako aparkalekuen zerbitzua eskaintzen du, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 g artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeak buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak aparkalekuen arloan aurreikusitako eskumena baliatuz.

Zerbitzu hori emateko, orain arte, kalean bizikletak aparkatzeko lekuak egokitu izan dira bide publikoan, eta hori zabaldu egin nahi da, hirian bestelako aparkalekuak ere ezarrita, aparkaleku kolektibo eta seguruak, bizikletan ibiltzen diren herritarrek aparkatzeko aukera gehiago izan dezaten.

Izan ere, bizikleta mugikortasuna gehiago ez zabaltzeko arrazoietako bat da bizikletak jatorrian (etxean) zein destinoan (lanlekua, ikastegia edo beste leku batzuk) gordetzeko zailtasuna. Horrenbestez, bizikletaren erabilera sustatzeko eta mugikortasun aktibo eta iraunkorraren aldeko benetako apustu irmoa egiteko, beharrezkoa da esku hartzea, txirrindulariek bizikleta gordetzea arazotzat jo ez dezaten.

Bide publikoan aparkalekuak jartzeko eskaera handia dago, eta Udalak erantzuna eman behar dio horri MIEPP garatzen jarraitu ahal izateko, horren helburua, gainera, eskaera handituz joatea baita, bizikleta mugikortasuna handitzearekin batera.

Bestetik, kalean utziz gero bizikletak lapurtzeko arriskua handiagoa da, eta aterperik gabe egotean hondatu egiten dira, eta hori ere bada kezka iturri txirrindularientzat.

Hori kontuan izanik, bistakoa da gure hirian bizikletaren erabilera eragina izan dezakeen faktoreetako bat aparkaleku seguru eta erosoak sortzea dela, hirian zehar ongi banatuak, bizikletan sartzeko ahalbidetzeko.

Horregatik guztiarengatik, bizikleta-aparkaleku seguruaren udal sarea sortzea erabaki du Gasteizko Udalak. Aparkalekuak erabiltzaileen erosotasuna eta irisgarritasuna bermatuko duten moduluez hornituta egongo dira, eta sarbidea kontrolatzeko sistemez zein bideo-zaintzaz lokal barruan, seguru aparkatzea ahalbidetzeren. Neurri horren bidez, bizikletak gordetzeko gelarik ez duten auzoetan bizi direnei bizikletak errazago gordetzeko aukera eman nahi zaie, eta hala bi helburu bete: bizikletaren erabilera sustatzea eta segurtasuna bermatzea, kalteak eta lapurretak eragotziz.

Bestetik, bizikletak aparkatzea erraztu eta bide publikoan dauden bizikleta-aparkalekuen saturazioa konpondu nahi da.

Pertsonen mugikortasunaren patroiak aztertzean genero-ikuspegia (otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikulua eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 31.3 artikulua) kontuan hartzea ere garrantzitsua da —hau da, jakitea zergatik jokatzen duten ezberdin emakumeek eta gizonek joan-etorri dagokienez—, batez ere bizikletaren erabilera sustatzeko politika publikoak diseinatzerakoan, eta alderdi horiek ere aintzat hartu dira ordenantza lantzerakoan.

Garraio eta mugikortasun sistemen planifikazio egokia azpiegitura seguru eta kalitatekoak (bizikleta-aparkalekuak) izatean islatzen da, eta horrek eskatzen du emakumeei bermatzea baliabide eta zerbitzu horiek gizonen baldintza beretan eskuratu ahalko dituztela eta, hartara, genero-arrakala murriztea eguneroko eta ohiko jarduera batean, alegia, hiritik bizikletaz ibiltzean.

Azkenik, hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako gomendioak betetzen ditu ordenantzak (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 14.11 artikulua).

— II —

Ordenantza honek, zeina Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 5. artikuluan toki-erakundeei aitortzen zaien erregelamenduak egiteko eta beren burua antolatzeke ahalaren fruitu baita, Gasteizen bizikleta-aparkaleku seguruaren zerbitzuan (VGBiziz) sartzeko eta hori erabiltzeko baldintzak ezartzea du helburu.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasota dauden erregulazio onaren printzipioei erantzuten die ordenantzak.

Horrela, bada, premia-printzipioaren ildotik, interes orokorreko arrazoiak justifikatzen dute araua, aurreko paragrafoetan azaldu bezala; izan ere, pertsona guztien eguneroko eremuari eragiten dio, eta izaera arautzaileko xedapen baten bitartez baino ezin da lortu hori.

Bestalde, efikazia-printzipioaren ildotik, gorago adierazi diren helburuak lortu nahi dira arauaren bitartez, bizikleta-aparkaleku kolektiboaren eskaintza berria sortuz bizikletak ibilgailu motordunen ordezkotzat erabiltzea sustatzen lagunduko duelakoan.

Proportzionaltasun-printzipioaren ildotik, kalean bizikleta-aparkalekuen saturazioa saihestuz espazio publikoaren erabilera arrazionala bermatzeko ezinbestekoa den erregulazioa biltzen du ordenantzak.

Segurtasun juridikoaren printzipioa aintzat harturik, udal-eskumenen esparrura mugatzen da ordenantza, eta bertan garatzen, eta arau-esparru egonkorra sortzen du, iragartzeko modukoa, integratua eta argia, zeinek ziurtasuna ematen baitu, eta inplikaturako pertsona guztiek ezagutu eta uler dezatela ahalbidetzen.

Aldi berean, hiri-mugikortasun iraunkorraren egungo nahiz etorkizuneko desfioei konponbidea aurkitzeko marko malgu bat osatzen du. Era berean, efizientzia-printzipioari erantzuten dio ordenantzak, beharrezko ez diren administrazio-kargak, pertsonentzat baztergarriak direnak, ekiditen dituelarik, eta baliabide publikoen kudeaketa sinplifikatu eta arrazionalizatzen.

Azkenik, gardentasun-printzipioren ildotik, herritarrek lege-mailako arauak eta erregulamenduak egiteko prozeduran parte hartzeko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitako bidea baliatu da; zehazki, kontsulta publikoaren tramitea Gasteizko Udalaren webgunearen bitartez, izaera arautzaileko xedapenen tramitazioari dagokionez.

— III —

Ordenantza honek 28 artikulua eta bi azken xedapen ditu. I. kapituluak xedapen orokorrak, xedea, aplikazio-eremua, definizioak, ordutegiak eta zerbitzua erabiltzeko baldintzak biltzen ditu.

II. kapitulua bizikleta-aparkaleku publiko estali eta segurua instalatzeko prozedurari buruzkoa da, eta alderdi hauek arautzen ditu, besteak beste: zerbitzua erabiltzeko prozedura, abonamendu modalitateak, ordainketa, zerbitzuan baja ematea, zerbitzuaren erabilera, bizikletak aparkatzeko eta hartzeko prozedura, bizikletak/zikloak lekutik eramatea, bezeroari arreta ematea eta zerbitzuaren aldaketak.

III. kapituluan zerbitzuaren erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak zehazten dira.

IV. kapitulua udalaren ikuskapenari buruzkoa da.

V. kapituluak alorreko arau-hauste eta zigorren araubidea zehazten du, zigorrak ezartzeko eskumena, prozedura zigortzailea, kautela-neurriak, lehenengoan uzteko eta konpontzeko obligazioa eta auzibide penalarekiko bateratasuna.

Amaitzeko, ordenantzaren azken xedapenetako lehenengoan hura garatzeko gaikuntza zehazten da, eta bigarrenean, indarrean jartzea.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Gasteizko Udalaren VGbiziz bizikleta-aparkaleku seguruan sartzeko eta aparkalekua erabiltzeko baldintzak arautzea da ordenantza honen xedea.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

VGbiziz zerbitzua osatzen duten bizikleta-aparkaleku publiko estali eta seguruko instalazioetako aparkatzeko plaza publiko orori aplikatuko zaie ordenantza hau, horiek lagatzeko edo erabiltzeko eskaintzen den erregimena edozein delarik.

3. artikulua. Definizioak

Ordenantza honi dagozkionetarako, definizio hauek baliatuko dira:

a) VGbiziz zerbitzua. Hauek osatuko dute VGbiziz zerbitzua: Udalak instalazio estalietan eskaintzen dituen bizikleta-aparkaleku seguruko plaza guztiak, dela bizikletentzako lonjetan, dela ibilgailuen aparkalekuetan zedarritutako espazioetan, dela bide publikoetan jarritako "iglooetan", dela eraikinei atxikitako edo haien ondoko estalkietan, dela beste eraikuntza motaren batean, baldin eta Eraikinetan bizikleta-gordelekuak instalatzearen ingurukoak arautzeko Ordenantzak eraikinari edo instalazioari zein horren segurtasunari buruz eskatutako baldintzak betetzen badiu edo, halakorik bada, zerbitzua emateko edo instalazioak edo segurtasun-sistemak jartzeko udal lizitazioaren baldintza-orrietan eskatutakoak, horiek lagatzeko edo erabiltzeko eskaintzen den erregimena edozein delarik.

b) Aparkaleku estali eta segurua: Eraikinetan bizikleta-gordelekuak instalatzearen ingurukoak arautzeko Ordenantzan ezarritako betekizunak betetzen dituena edo, halakorik bada, zerbitzua emateko edo instalazioak edo segurtasun-sistemak jartzeko udal lizitazioaren baldintza-orrietan eskatutakoak.

c) Aldizkako lekua: Sistemari harpidetutako edozein erabiltzailek aldi baterako erabiltzeko egokitutako lekua.

d) Egoiliarrentzako lekua: Horren titularra den pertsonak aldi batez — harpidetza modalitatearen arabera— erabiltzeko esleitutako leku izenduna, ainguratzeko moduluan edo aparkalekuan bertan jarritako zenbaki batez identifikatua.

4. artikulua. Ordutegiak

1. Aparkalekuek eguneko 24 orduetan funtzionatuko dute.

2. Udalak zerbitzua erabiltzeko ordutegia eta aparkalekuak irekitzeko denbora aldatu ahalko du, arazoiturik; aldez aurretik ohartarazi beharko du horretaz, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horretarako sortzen den doako aplikazio mugikorraren bidez jakinarazi beharko zaie aldaketa erabiltzaileei.

5. artikulua. Zerbitzua erabiltzeko baldintzak

1. Hamasei (16) urtetik gorako pertsona fisiko orok eskatu ahalko du zerbitzuan alta ematea, 6. artikuluan ezarritako prozedura betez.

2. Pertsona fisiko bakoitzak alta bakarra eman ahalko du, bai modalitate arruntean (aldizkako) bai egoiliar modalitatean, beren kargura adingabeak dituzten tutoreak izan ezik:

a) Modalitate arruntean (aldizkako), gurasoek edo legezko tutore diren pertsonak aparkalekua erabiltzeko baimena eman ahalko diete adingabeei. Kasu horretan, aparkalekua erabiltzearen erantzukizuna gurasoena edo legezko tutoreena izango da.

b) Egoiliar modalitatean, gurasoek edo legezko tutore diren pertsonak leku bat eskatu ahalko dute VGBiziz aparkaleku zerbitzuan beren kargura dituzten adingabeentzat eta haien esleipendun izan. Kasu horretan, aparkalekua erabiltzearen erantzukizuna gurasoena edo legezko tutoreena izango da.

3. Gasteizko udalak zerbitzua erabiliko duten zikloak udalaren bizikleten udal erregistroan inskribatzeko eskatu ahalko du, bai alta berria eskatzeko unean, bai erabiltzen jarraitzeko.

II. KAPITULUA

BIZIKLETA-APARKALEKU PUBLIKO ESTALI ETA SEGURUKO INSTALAZIOETARAKO PROZEDURA

6. artikulua. Zerbitzua erabiltzeko prozedura

1. VGBiziz zerbitzuko egoiliarren lekuetan alta emateko, leku horiek erabiltzeko baimena esleitzeko deialdi publikoetan eta haien oinarrietan ezarritakoari jarraituko zaio.

2. Zerbitzuaren alta baieztatzeko, sistematik kode bat bidaliko da erabiltzailearen mugikorrera.

Erabiltzaileari alta eman ondoren, hark abonamendua erosi beharko du, eta espresuki adieraziko du hura automatikoki berritzea nahi duen; ezartzen diren erabilera-baldintzak ere onartu beharko ditu.

3. Abonamendua erosteak bizikleta/ziklo aparkalekua erabiltzeko eskubidea emango du, zuzeneko zaintzarik gabe, eta egokituz joz gero beste aparkaleku batzuk sortzen badira bizikleta edo zikloentzat eta zerbitzuaren barruan sartzen, horiek ere erabiltzeko eskubidea izango da.

4. Abonamendu berarekin bizikleta/ziklo bakarra aparkatu ahalko da. Dena den, abonamenduaren titularrak erabaki ahalko du sisteman erregistratuta daudenen artean zein bizikleta edo ziklo aparkatu. Erabiltzaileak bizikleta/zikloa aldatzen badu abonamenduaren indarraldian, erregistroa eguneratu ahalko du.

5. Abonamendua pertsonala eta besterenezina da, eta ezin izango da inola ere eskualdatu.

6. Kodeak eta identifikatzeko ezartzen den edozein bitarteko pertsonalak eta besterenezinak dira; horrek ez du kentzen erabiltzaile baimendunek baliatu ahal izatea, alegia, gurasoek edo legezko tutoreek zein beren kargura enpleguak dituzten pertsona juridikoek. Eskatutako abonamendu motari dagokion indarraldia izango dute. Zerbitzuan alta emateko sistemak eskabide berriak egitea mugatu ahalko du, zenbat leku dagoen erabilgarri eta zerbitzua zenbateraino dagoen beteta kontuan hartuz.

7. artikulua. Abonamendu modalitateak eta ordaintzera behartuak

Bizikleta-aparkaleku segurua erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioak arautzen dituen 8.17 ordenantza fiskalean aurreikusitako abonamendu modalitateetako edozein aukeratu ahalko dute zerbitzuaren erabiltzaileek, eta arau horretan adierazitako prezio publikoak ordaintzeko obligazioa izango dute.

8. artikulua. Ordaintzeko prozedura

Ordaintzeko prozedurari eta bidegabeko kobrantzei dagokienez, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio.

9. artikulua. Zerbitzuan baja ematea

1. Doako aplikazio mugikorraren edo web-orriaren bidez eman ahalko du erabiltzaileak baja zerbitzuan.

2. Orobat, kontratatutako abonamendua ez duela berritu nahi adierazi ahalko du, aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

3. Erabiltzeko baldintzetan besterik ezartzen bada, hori ere bete beharko da.

10. artikulua. Zerbitzuaren erabilera

1. Bizikleta/ziklo aparkaleku seguruaren zerbitzuaren sarbidea automatizatuta dago, eta norbera identifikatzeko aplikazio mugikorraren, kode pertsonalen edo telefono-deiaren bidez sartu ahalko da.

2. Zerbitzu bakoitzeko aparkaleku bakarra erabili ahalko da. Egoiliarrentzako aparkalekuetan izan ezik, abonamendua erostek ez dio instalazioaren barruan leku zehatz bat erreserbatzeko eskubidea emango erabiltzaileari.

3. Aparkalekua erabiltzerik ez bada, beteta dagoelako, zerbitzuak ez du inolako zenbatekorik itzuliko. Zerbitzuak egoiliarrentzako lekuak ixten baditu, eta zerbitzuarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gertatzen bada, hori erabiltzerik izan ez duten denborari dagokion zati proportzionala itzultzeko eskatu ahalko dute erabiltzaileek.

11. artikulua. Bizikletak aparkatzeko eta hartzeko prozedura

1. Prozedura honi jarraituko zaio bizikletak aparkatu eta hartzeko:

- Zerbitzuaren erabiltzaileak bere kodea balidatuko du, aplikazio mugikorra edo sartzeko ateko botoiak baliatuz edo atean dagoelarik telefonoz deituz. Atea irekitzen denean, bizikleta/ziklo bakarra sartuko du erabiltzaileak, eta bere kargura dituen adingabeak ere sartu ahalko dira, berarekin badoaz.

- Ondoren, aparkalekuko ate automatizatua zabalduko da, eta erabiltzailea instalazioaren barruan sartuko. Atea itxi arte itxarongo du, zerbitzuarekin zerikusirik ez duten pertsonak sar ez daitezten; aparkalekua aukeratuko du, eta bizikleta/zikloa ainguratuko. Bizikletak/zikloak bizikleta-aparkalekuari behar bezala lotuko zaizkio, giltzarrapoz.

- Azkenik, erabiltzailea aparkalekutik irtengo da, etengailua sakatuz, eta atea itxi arte itxarongo du, zerbitzuarekin zerikusirik ez duten pertsonak sar ez daitezten; bizikleta-aparkalekua ondo itxita geratu dela egiaztatuko du beti.

- Bizikleta instalaziotik hartzerakoan, erabiltzailea berriro identifikatuko da aplikazio mugikorra, kodea, gako pertsonalak edo telefono-deia baliatuz, sistemak bizikleta/zikloa hartu dela identifikatu dezan eta aparkalekuko ate automatikoa ireki dadin, erabiltzailea esparrutik atera ahal izateko.

2. Zerbitzuaren erabiltzaileak bere gain hartzen du instalaziora bizikleta/zikloa uztera edo hartzera joaten den bakoitzean identifikatzeko obligazioa. Aipaturako obligazioa bete ez badu, sisteman aparkatze-denborez agertzen diren datuen arabera sortzen diren betebeharrak ekonomikoak erantzun beharko die.

3. Ekipamendua sisteman behar bezala erregistratutako bizikleta/zikloa aparkatzeko erabiliko da, ez bestetarako, eta ezingo da aparkaleku bat baino gehiago erabili aldi berean. Nahitaezkoa da bizikleta giltzarrapoz lotzea aparkalekuan utzi izana ziurtatzeko.

Leku bakoitzeko bizikleta/ziklo bakarra aparkatu ahalko da, horrek instalatuta dituen osagarriak (argiak, umeak eramateko aulkia, zakutoak...) barne, gehi kaskoa, erabiltzailearen erantzukizunaren pean. Debeztatuta dago instalazioaren barruan beste edozein objektu uztea.

Bizikletari/zikloari ezer gertatuz gero, Udalak bakarrik hartuko du erantzukizuna bere gain baldin eta bizikletak/zikloak instalazioan sartzeko kontrol-sisteman akatsik izan bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo hirugarren batek manipulatu edo esku hartu badu.

4. Bizikleta/zikloa utzi duelarik, aparkalekua kontratatutako abonamenduaren indarraldian erabiltzeko eskubidea izango du erabiltzaileak.

Ezaugarri bereziak dituzten zikloak ezaugarri horietara egokitzen diren lekuetan aparkatu beharko dira, dagokien lekua gainditu gabe, beste bizikleta/ziklo batzuen sarrera edo irteera ez eragozteko. Ziklo horiek gehienez ere 0,90 metro zabal izango dira.

Bizikleten/zikloen atoiak ezingo dira haietatik bereiz aparkatu. Haiekin batera aparkatu beharko dira, haien ezaugarriei dagozkien lekuetan.

Karga elektrikorako guneen ondoko lekuak asistentzia elektrikoa duten bizikleta/zikloek erabiltzeko izango dira eskusiboki.

Ezaugarri bereziak dituzten zikloentzako lekuak haiek erabiltzeko izango dira eskusiboki.

Ezarritako antolakuntza errespetatu beharko da aparkatzeko espazioaren barruan. Ezingo da bizikleta/ziklorik aparkatu horretarako egokituta ez dauden hutsarteetan.

5. Erabilera arauak ez betetzeagatik edo ibilgailua zuhurtzirik edo axolarik gabe erabiltzeagatik instalazioan kalte-galerarik sortuz gero, zerbitzuan alta emandako pertsona fisikoak horientzat erantzun beharko du Gasteizko Udalaren eta hirugarrenen aurrean.

Ezinbesteko kasuetan, Udalak edo horretarako kontratatutako entitateak bizikleta/zikloa lekuz aldatu ahalko du, eta erabiltzaileari jakinarazi beharko dio zein lekutan utzi duten bizikleta/zikloa, hark zerbitzua baliatzen jarraitzerik izan dezan geratzen zaion denboran.

12. artikulua. Bizikletak/zikloak eramatea

1. Kontratutako abonamenduaren epearen barruan utzi beharko du aparkalekua erabiltzaileak. Epea amaitutakoan, Udalak ohartarazpena bidaliko dio telefonoz, ibilgailua eramateko 24 orduko epea emanez. 24 ordu horiek igaro ondoren, eta behar bezala justifikatutako arrazoiak izan ezean, Udalak giltzarrapoa hautsiko du, eta bizikleta/zikloa Udaltzaingoaren ibilgailu-biltegira eramango.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, zerbitzuaren erabiltzaileak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

2. Bizikleta berreskuratzeko, erabiltzaileak Udaltzaingoaren biltegira joan beharko du, eta bertan bizikleta eramateari dagokion tasak ordaindu beharko ditu, baita ibilgailua udal biltegian edukitzeagatik tasa ere, beharrezkoa bada. Bizikleta eraman ahal izateko, hura aparkaleku-sisteman erregistratuta dagoela egiaztatu beharko du, eta ordaindu gabeko zorrik badu, hura ordaindu.

3. Instalazioan zerbitzuan erregistratuta ez dagoen bizikletarik/ziklorik utziz gero, eraman egingo da bertatik, aurreko paragrafoetan ezarritakoaren ildotik, eta jabea egiaztatuz berreskuratu ahalko da.

13. artikulua. Zerbitzuaren bezeroentzako arreta

1. Gasteizko Udalak bizikleta-aparkalekuari buruzko informazioa eta herritarrentzako arreta emango du, lekuan bertan, herritarrei laguntzeko bulegoetan, web-orrian eta 010 telefonoan, eta udalaren webguneko bizikletari buruzko atalean.

2. Web-orrian zehaztuko da norengana jo behar den sarbideekin eta zerbitzuko alta eta bajeekin lotutako gorabeherei buruz telefonoz kontsultatzeko, baita aholkularitza eta laguntza jasotzeko zerbitzuaz baliatu ahal izateko behar diren prozesu guztietan.

3. Zerbitzua emateko baldintza eta zirkunstantziekin lotuta bestelako erreklamaziorik egin nahi bada, Gasteizko Udalera jo beharko da, ohiko komunikazio-kanalen bidez (herritarren postontzia, 010, etab.).

14. artikulua. Zerbitzuaren aldaketak

Zerbitzua erabiltzeko baldintzak aldatuz gero, baldintza berriak onartu beharko dira, aplikazioa edo web-orria baliatuz; baldintza horiek onartzen ez baditu, zerbitzuan baja eman ahalko du erabiltzaileak.

III. KAPITULUA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

15. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Zerbitzuaren erabiltzaileek eskubide hauek dituzte:

a) Zerbitzuari atxikitako aparkalekuak erabiltzeko eskubidea, ezartzen diren baldintza eta mugen barruan, bizikleta-aparkaleku publiko estali eta segurua izan zein auzoetako biztanleentzako bizikleta-aparkaleku publiko seguru bateko plaza izan.

b) Bizikleta-aparkaleku publiko seguruko instalazioak erabiltzeko eskubidea, ordenantza honetan ezarritako baldintzetan.

c) Web-orriaren edo beste bitarteko baten bidez zerbitzuaren gorabeheraz eta prezioez informatuta egoteko eskubidea, baita har daitezkeen bestelako neurriez ere, eta egokitzat jotzen dituen erreklamazioak aurkezteko eskubidea.

d) Zerbitzuari buruzko informazioa eskatu eta jasotzeko eskubidea, eta iradokizunak, erreklamazioak eta kekek aurkeztu eta horien erantzuna jasotzekoa, posta elektronikoz, posta arruntez edo aurrez aurre.

e) Sistemak kobratutako zenbatekoak itzul dakizkion, bidezkoa den kasuetan.

16. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Aparkalekua baliatzen duen erabiltzaileak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Zerbitzua eta osagai guztiak ahalik eta ardura handienaz erabiltzea.

b) Ordenantza honetan ezarritako kasuetan kodeak edo beste edozein identifikazio-sistema erabiltzeko baimena ematea.

c) Aparkalekuak bakarrik berak erregistratutako bizikletak/zikloak aparkatzeko baliatzea, ordenantzan ezarritakoari jarraituz.

d) Aparkalekuren batek matxurarik edo kalterik izanez gero, zerbitzuko langileei jakinaraztea, non eta nola dagoen adieraziz.

e) Aparkalekuan sartzen denetik bizikleta/zikloa hartuta irteten den arte horren erabilera eta zaintza egokiaz pertsonalki arduratzea.

f) Ekipamendua erabiltzerakoan, hura ondo itxita geratzen dela egiaztatzea.

g) Horretarako baimendutako edo esleitutako langileei nahiz eskatzen duten agintariei sistemaren erabilerari buruzko datuak ematea.

h) Abonamenduarekin lotuta datuetan gertatzen diren aldaketak jakinaraztea, baita kobratzeko erabili behar den banku-kontuan eta/edo txartelean gertatutakoak ere.

i) Zerbitzuari emandako datu guztiak benetakoak izatea.

j) Sistemara sartzeko gakoak eta kodeak era seguruan gordetzea.

k) Bizikleta-aparkalekua osatzen duten elementuetan esloganik, marrarik, marrazkirik, pintadarik edo antzekorik ez margotzea.

l) Bizikleta/zikloa utzi edo hartzeko aparkalekuan sartzen den bakoitzean bere burua identifikatzea.

m) Bizikleta/zikloa horretarako egokitutako lekuetan aparkatzea.

IV. KAPITULUA UDAL IKUSKAPENA

17. artikulua. Udal ikuskapena

Udalak ikuskatuko du Gasteizko Udalaren VGbiziz bizikleta-aparkaleku seguruaren zerbitzua.

V. KAPITULUA ZIGORTZEKO ERREGIMENA

18. artikulua. Ikuskapena eta kontrola

1. Udalak izendatzen dituen teknikariek egingo dituzte ikuskapen- eta kontrol-lanak; hain zuzen ere, ordenantza honetan arautzen diren gaien inguruko zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-jarduerak burutu ahalko dituzte.

2. Teknikariez gain, Udaltzaingoak ere egin ahalko ditu ikuskapen-lanak, eta aparkalekuetan agertu ahalko da, gorabeherarik antzemanez gero.

19. artikulua. Legezkotasuna babestea

Neurri hauek hartu ahal izango dira ordenantzan xedatutakoaren kontrako ekintzak edo ez egiteak egokituz gero, bakoitzerako aurreikusita dagoen prozedurari jarraiki:

a. Hondatutakoa berritu edo lehengo egoerara bihurtzeko obligazioa, baita kalte-galerak ordaintzekoa ere.

b. Kautela-neurriak hartzea, aplikatzekoa den araudian ezarritakoari jarraiki.

c. Administrazio-aginduen betearazpen subsidiarioa.

d. Zigorak jartzea.

20. artikulua. Arau-hausteak eta zigorrak

1. Ordenantza honetan halakotzat tipifikatutako ekintzak eta ez egiteak administrazio arau-haustetzat joko dira, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluan xedatutakoaren ildotik.

2. Ordenantza honetan aurreikusten den zigortzeko ahalmenaz baliatzekotan, lehenik eta behin prozedura zigortzailea abiarazi eta izapidetu beharko da, kapitulu honetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zein Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren ildotik.

3. Egile materialak izango dira arau-hausteen zuzeneko erantzuleak, eta halakotzat joko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 9. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoa betetzen dutenak; adingabeak badira edo legezko egotzezintasun kausaren batean sartuta badaude, legezko zaintza dutenek erantzungo dute haien ordez.

Arau-haustea zenbait pertsonak batera egin badute, guztiek solidarioki erantzungo dute.

Kalteen erantzule solidario izango dira, halaber, beste batzuek egin ditzaketan administrazio-ko arau-hausteei aurre hartzeko legezko betekizuna duten pertsona fisiko edo juridikoek.

21. artikulua. Arau-hausteak

1. Arau-hauste arinak:

a) Bizikleten aparkatze- eta lotze-sistemetan 200 eurorainoko kalteak egitea.

b) Aparkalekutik irtetea ondo itxita dagoela egiaztatu gabe.

- c) Baimendutako langileei edo agintariei sistemaren erabilerarekin lotutako datuak ez ematea.
- d) Bizikletak/zikloak berariaz baimenduta ez dagoen lekuetan aparkatzea.
- e) Tamaina estandarra duen bizikleta/zikloa uztea tamaina berezia duten zikloentzako lokailuetan.
- f) Bizikleta/zikloa bizikleta elektrikoei erreserbatutako lekuetan aparkatzea, karga elektrikoaren hartunea erabili gabe.
- g) Egoiliarrentzako lokailua erabiltzea horren titularra izan gabe.
- h) Bizikletez/zikloez eta horien osagarriez gain beste objektu batzuk uztea.
- i) Abonamendu-kuota ez ordaintzea.
- j) Datu pertsonalen edo kobratzeko erabiltzen den banku-kontuaren nahiz txartelaren datuen aldaketak ez jakinaraztea.
- k) Aparkalekuan bizikleta/zikloa utzi edo hartzeko sartzan den bakoitzean bere burua ez identifikatzea.
- l) Aparkalekua hirugarrenei erabiltzen uztea, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.
- m) Kontratutako abonamendu modalitatearen arabera aparkalekuan jarraian egon daitekeen denbora gaintzea, behar den moduan justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- n) Bizikleta/zikloa kontratatutako abonamenduaren epean ez eramatea, behar den moduan justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

2. Arau-hauste larriak:

- a) Bizikleten aparkatze- eta lotze-sistemetan 200 eta 500 euro arteko kalteak egitea.

3. Arau-hauste oso larriak:

- a) Bizikleten aparkatze- eta lotze-sistemetan 500 eurotik gorako kalteak egitea.
- b) Aparkatzeko modulua osorik edo partez desmuntatzea.
- c) Instalaziora sartzeko atea edo mekanismoa apurtzea.

22. artikulua. Zigorrak

1. Isun hauekin zigortuko dira aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteak:

- Arau-hauste oso larriak: 3.000 eurorainoko isuna.
- Arau-hauste larriak: 1.500 eurorainoko isuna.
- Arau-hauste arinak: 750 euro arteko isuna.

2. Arau-hausteak mailakatu eta isunen zenbatekoa zehazteko, irizpide hauek hartuko dira aintzat:

- a) Erruduntasun-maila, edo nahita egin den.
- b) Jokabide arau-hauslearen jarraitutasuna edo iraunkortasuna.
- c) Eragindako kalteen izaera.

d) Berrerori izana, urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago eginez, administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bitartez hala deklaratu bada.

23. artikulua. Zigortzeko eskumena

Gobernu Batzarra izango da organo eskuduna ordenantza honetan finkatutako zigorrak ezartzeko, eskumen hori besteri eskuordetzeko ahalmena gorabehera.

24. artikulua. Prozedura zigortzailea

1. Kapitulu honetan zehaztutako arau-hausteak zigortzeko prozedura bat etorriko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean edo horiek ordeztzen dituzten araudietan xedatutakoarekin.

2. Zigortzeko ahalmenaren printzipioei dagokienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko da.

25. artikulua. Kautela-neurriak

Zigortzeko ahalmena baliatzeko eskumena duen organoak kautela-neurriak hartu ahal izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen edo horiek ordeztzen dituzten araudien ildotik.

26. artikulua. Lehengoan uzteko eta konpontzeko obligazioa

1. Zigorra ezartzeaz gain, arau-hausleari berak eraldatutako egoera lehengoan uzteko eskatu ahal izango zaio, baita, halakorik izanez gero, sortutako kalte-galerak ordaintzeko ere.

2. Udal jabetzako ondasunei kalterik eginez gero, udal zerbitzu teknikoek konponketaren zenbatekoa zehaztuko dute, eta arau-hausleari edo haren ordeztun behar duenari jakinaraziko, finkatzen den epean ordain dezan.

27. artikulua. Zehapen ekonomikoen ordeztzeko lanak egitea

1. Ordenantza honetan jasotako betebeharrak, debekuak edo mugapenak ez betetzeagatik ezar daitezkeen zigor ekonomikoen ordeztzeko lanak egitea ezarri ahalko dira, aldez aurretik dagokion araudia garatuta, zeinean zehaztuko baitira barne hartzen diren arau-hausteak eta horiek ezartzeko baldintzak.

28. artikulua. Bateratasuna auzibide penalarekin

Prozeduraren edozein unetan instrukzio-egileak uste badu bideratzen ari den egintza lege-hauste penaltzat har daitekeela, Euskal Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 25. artikuluan edo ordeztzen duen araudian xedatutakoa aplikatuko du.

Azken Xedapenetan Lehena. Garatzeko gaitzuna

Alkateari —edo ordeztuko izendatzen duen zinegotziari— ahalmena ematen zaio ordenantza hau zuzen interpretatu eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen direnak ebazteko.

Azken Xedapenetan Bigarrena. Indarrean jartzea

ALHAOn argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 18ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igarotzen delarik jarriko da indarrean ordenantza hau.